



# Eskualdea ezagutzeko ibilbideak, liburu batean

**ESKAINZA** ▶ 'Ibilaldiak Tolosaldean barrena' gida liburuak 39 bide seinaleztatu jasotzen ditu

**ELKARLANA** ▶ Tolosaldea Tour-ek kaleratu du eta eskualdeko 28 herriak aritu dira elkarlanean ▶ 2



Ibilaldien gidaliburuaren arduradunak atzo Donostiako taberna batean egin zuten aurkezpenean. LEIRE MONTES

**VILLABONA** ▶

## Garagardo Azoka, zabaltzeko prest

Bihartik igandera luzatuko da Txermin ikastolan ▶ 4

**LIZARTZA** ▶



I.ETXEBESTE

## Egibarren erabakia atzera bota du EAJK

Baliogabetze idatzia Hauteskunde Batzordean aurkeztu du alderdiak ▶ 4

**ARESO** ▶

## Astomela erreka auzolanean garbituko da

Udalak diru laguntza jasoko du ▶ 7

**BIDEGOIAN** ▶

## Gaur, Olinpiar Jokoak eta bihar etxetik kanpo egingo dute lo

Inoiz baino haur eta gaztetxo gehiago daude aurten udaleku irekietan ▶ 5



Bidegoiango udaleku irekietako haurrak atzo jolasean. OLAIA ESKITXABEL

TURISMOA ▶

# Ibiliz gozatu eta ikasteko

'Ibilaldiak Tolosaldean barrena' gida kaleratu du Tolosaldea Tour eskualdeko turismo bulegoak; eskualdeko 39 bide seinalatzatu jasotzen ditu liburuak



Ezker-eskuin: Koro Garmendia, Jokin Bildarratz, Anjel Irastorza, Bernardo Goikoetxea eta Antxon Agirre Sorondo, atzoko aurkezpean. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

Ibiliz eta txokoak ikusiz Tolosaldeaz gozatzeko eta ikastea posible dela berresteko, *Ibilaldiak Tolosaldean barrena* gida kaleratu du Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak, Tolosaldea Tour-en bitartez. Zonaldeko 39 bide seinalatzatu jasotzen du liburua, 400 kilometro inguruko zabalera, guztira; eta dagoeneko salgai da liburutegietan.

Atzo bertan aurkeztu zuten Jokin Bildarratz Tolosaldeko alka-

te eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak, Anjel Irastorzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean, Koro Garmendiak Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa eta Antxon Agirre Sorondo etnografoak, Donostiako Gros auzoko Azken muga tabernan. Bernardo Goikoetxea Tolosaldea Garatzen-eko gerenteari «liburuan era batera edo bestera parte hartu duen eskualdeko jende guztia» gogoan hartu nahi izan zituen ekitaldian.

Agirre Sorondok gizarteak

jasan duen bilakaera azaltzen hasi zuen jarduna, eta egun balore etnografikoak garrantzi handia duela azaldu zuen, era berean: «Esku artean dugun liburua balore etnografiko izugarria duen gida da. Bideak berak eskaintzen duenaz gozatzera bultzatzen gaitu, hausnarketari tartea egitera, eta paisaiaren ikuspegi berriak aurkitzera. Senderismoaren bertuta handi bat zera da, giza-kiak urte eta mendetan zehar utzitako aztarnak aurkitzeko aukera ematen duela: trikuharrak, hilarriak, mugarriak, baserriak, txabolak, basoak...».

Horrelako gidek «ondarea mantentzeko, haren balioak jabetzeko eta ezagutzera emateko ezinbesteko tresna» direla gaineratu zuen etnografoak: «Gainera, botere publikoak horretaz ohartzera behartzen dituzte hau bezalako ekimenek».

Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean hartu zuen ondorengo hitza Irastorzak. Haren esanetan, «herri kutsua» du gidak: «Gida hau eskualdeko seme-alabentzat idatzita dagoela iruditzen zait. Irmoki sinisten dut etxeontzat egindako produktuetan. Izan ere, hobeto egiten dira, mimo handiagoz; eta bisitariak ere hori guztia baloratzen badak!».

Gipuzkoako barnealdeak ere «bisitariari aukera asko» eskaintzen dizkiola gogoratu zuen, era bere-

an: «Gipuzkoa ez da soilik kostaldea eta hondartza eskaintza. Barrualdeak gauza interesgarri ugari eskaintzen ditu, eta datozen bisitarien eskariei erantzuten die, gainera».

Ilido beretik mintzatu zen Eusko Jaurlaritzako ordezkari Koro Garmendia: «Guregana datozen turistek Euskal Herria ezagutu nahi dute. Eta gida hau benetan egokia da gure herria osotasunean ezagutu nahi dutenentzat». Bestalde, «landa turismoa garatzeko unean ezinbesteko tresna» dela azpimarratu zuen.

«Eskualde osoa elkarlanean»

Eskualdeak zituen aukerak ikusita, Tolosaldeko Udala 1997an hasi zen proiektu hau lantzen. Jokin Bildarratz alkateak «Tolosaldea osoaren elkarlana» azpimarratu zuen atzoko agerraldian: «Hogeita zortzi herri elkarrekin aritu dira lanean, etorkizunari begira».

Haren esanetan, bi norabidetara begiratzen du gidak: «Gipuzkoarentzat ekarpen handia da. Tolosaldea berez da erakargarria, baina orain idatziz adierazi nahi izan dugu. Eta Gipuzkoatik kanpo datozenei ere gure txokoak ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen die. Bide erosoak dira, errazak; gure historiari, kulturari, ondareari ere igarotzen dira».

FITXA ▶



**Izenburua.** *Ibilaldiak Tolosaldean barrena.*  
**Atalak.**

- ▶ *Ibilaldiak Tolosaldean barrena: lankidetzako proiektu bat.*
- ▶ *Argitalpen honetan aurkituko duzuna.*
- ▶ *Ezagutzea merezi duen eskualdea.*
- ▶ *Ibilbideen seinalatzapena.*
- ▶ *Ibilbidea hasi aurretik, oinarriko hainbat aholku.*
- ▶ *Ibilbideak. 39 bide, datu eta ezugarriekin: desnibela, distantziak, bidean aurki daitezkeen elementuak...*
- ▶ *Informazio gida: mendi elkarrekin, ostatuak, jatebeak, sagardotegiak, artisautza, gastronomia, museoak, jaiak, garraioak, informazio eta turismo bulegoak...*
- ▶ *Eskualdearen eta ibilbideen mapa.*

**Epilea.** Tolosaldea Tour-Tolosaldea Garatzen.

## Aurkezpena eta txangoa

Atzo Donostian aurkeztu zuten *Ibilaldiak Tolosaldean barrena* gida, baina eskualdekoei ere eman nahi diete aurrez aurre proiektuaren berri. Hala, bihar aurkezpena egingo dute, 20:00etan, Tolosaldeko Udaleko Udaltzargaren aretoan. Izaskun Ordezkariaren koordinazio lanak egiten dituen Galemys enpresaren ordezkaria, Juan Pedro Iturbe Gipuzkoako Mendi Federazioko lehendakaria, Antxon Agirre Sorondo etnologia, Bernardo Goikoetxea Tolosaldea Garatzen-eko gerentea eta Jokin Bildarratz Tolosaldeko alkatea izango dira bertan.

Larunbaterako, bestalde, txangoa antolatuko dute. Tolosaldeko Trianguloan elkartuko dira, 09:00etan, eta Alkizara joango dira, bertatik bi ibilbide egiteko: Aginagako ibilbidea (5,2 kilometro) eta Alkiza-Urdanesi-Alkiza (6,3). ◀

**Herri Irratia**  
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

**MERKATAL AGENTEA**

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

**TOLOSAKO UDALA**  
IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek 2004ko ekainaren 28an egindako bilan honako proiektu honi hasierako onespina eman zion zenbait baldintzekin:

Ibarra eta Tolosaldeko Udalek sustatuta, IKAUR enpresa idatzi duen proiektua, Apataerrekaren bideratzea berriaren proiektua.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo errekamazioak aurkezteko, HAMABOST EGUN (iragarki honen azken argitaratzea egun eta biharamunetik kontatzen hasita) jendeaurrean jarrita egongo da, Hirigintza Planeamendu Erregelamenduko 141 artikulua eta Hirigintzaren Planingintza eta Kudeaketarako tresnak izapidetzeko ekainaren 30eko Eusko Legebiltzarraren 17/94 Legeko 7. artikulua xedatuaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berria, Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Udaltzako Hirigintza Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B) egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo errekamazioak Alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaltzako Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosa, 2004ko Uztailearen 5ean  
ALKATEA

GORKA ETXEBERRIA ▶ TOLOSA CF-KO ENTRENATZAILE OHIA



«Gertatu zaidana benetako ametsa da»

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako zuzendaritza eta jokalariei emandako azken gomendioa, gauzak modu berean egiten jarrai dezaten izan da; lan zailena eginda dagoela iruditzen zaio

INÍGO ASENSIO

Bi urtez Tolosako entrenatzaile izan ondoren, Gorka Etxeberriari bere bizitzako aukera iritsi zaio. Arabiar Emirerri Batuetako Al Khaleej taldeko 2. entrenatzaile izango da datorren denboraldian eta berarekin Ibon Zoilo Tolosan prestatzaile fisiko gisa Gorkarekin lanean aritu den zaldibiarra joango da. Astelehenean kontatu zizkion HITZARI, guztia nola gertatu den eta etorkizunera begira dituen planak. Dagoeneko Arabiar Emirerri Batuetan dago.

**Dena prest dagoeneko arabiar lurretara jotzeko?**

Atzo [igandea] Brasiletik iritsi eta bihar [atzo] bertan joango naiz, beraz, bi egunetan dena prestatu eta abiatuko naiz Emirerrietara. Hau dena erokeria bat da.

**Prozesu guztia oso azkarra izan da, ezta?**

Uztailaren 31n Mikel Etxarrik

nirekin hitz egin behar zuela esan eta ostegunean bildu ginen. Ostiralean Juan Pedro Ben Ali entrenatzailearekin bildu nintzen, eta berak ikusitakoagatik eta Etxarrik komentatutakoagatik, tratua ostiralean bertan egiteko asmoa zuen. Nik, pentsatzeko gutxienez asteburua behar nuela esan nion, bitartean Ibon Zoilorekin hitz egin behar nuelako eta astelehenean bertan sinatu genuen akordioa.

**Galdera ekidiezina, zerk bultzatza zaitu honelako proiektu batean parte hartzerara?**

Dudarik gabe, lehenengo arrazoia kirol arlokoa izan da. 13 urte daramatzat entrenatzen eta denbora horretan sentsazio bera duzu buruan, dakizun guztia ezin dezakezula eman, zure eskura dituzun medioak oso mugatuak direlako. Bertan liga guztiz profesionalizatu batekin egingo dugu topo, eta medio guztiak izango ditugu geure eskura, nahi bezala lan egi-

teko. Entrenatzaile bezala ametsa da. Gehienera jota 2. B mailako talderen bat agertzea pentsa nezakeen, baina hau ezustekoa izan da. Horretaz gain, urtebeteko kontratu ona dugu, beraz, ez dugu ezekoa emateko arrazoirik.

**Zein erreferentzia duzu Arabiar Emirerri Batuetako bizi-modu, kultura eta bestelakotzat?**

Dakidanez lurraldea nahikoa okzidentalizatuta dago, nahiz eta kultura islamiarraren eragina nabarmena izango den. Hala ere kontraesan handiak daude, 100 metroko tarte batean ohiturak guztiz desberdinak izan daitezke.

**Bertan, guztiz desberdina izan daitekeen futbol topa zenezake, ez al zaitu horrek kezkatzen?**

Ez nuke esango futbol desberdina denik, futbol bat da. Beraien ohitura izan daiteke desberdina. Ez dakigu teknikoki nolakoak izango diren eta ezta

zein maila taktiko edo fisikoa duten. Agian fisikoki oso presatuak daude, baina taktikoki ez, edo alderantziz. Ezjakintasun osoa dugu orainoz, eta desorekak hor egon daitezke, baina futbola futbola da.

**Zer dakizu hango ligaz eta Al Khaleej taldeaz?**

Bertako ligan hamalau talde daude eta horietatik lau besteen gainetik daude; gu ez gara lau horietako bat. Gainera, desberdintasunak handiak dira. Espainiako Ligan ere badira bereizten diren lau talde, baina gainontzekoak arazorik gabe aritzen dira beraiekin lehian. Gure kasua zailagoa da. Holandar ligan PSV eta Ajaxekin gertatzen denaren antzeko gerbait gertatzen da han.

**Ben Ali entrenatzaileak arduraz guztia zuen bere gain orain arte, zein izango da zuen betebeharra Al Khaleej-en?**

Entrenamenduaren kontrola eta planifikazioa gure esku izango da, diseinua eta ejeku-

zioa gure ardura izango dira neurri handi batean, partidetan, berriz, berak aginduko du eta gu bera aholkatzeko egongo gara. Honetaz gain oinarriko futbol mailetan ere ariko gara lanean. Oinarriko mailako taldeak berrantolatuta eta gure lan ohitura bertan ezarriko dugu. Han erabiliko dugun lan plangintza, Tolosan prestatua genuenaren antzekoa da. Aurrendenboraldia luzeagoa izango da eta beharrak orokorrean desberdinak, baina gure entrenatzeko filosofia esportatzaera goaz hara.

**Guk ere gurerara jota. Hurrengo denboraldirako plan estrategiko bat aurkeztua zenuen Tolosa 3. Mailara igotzeko asmoz. Zein da orain egoera hurrengo urtera begira?**

Lan zailena eginda zegoela iruditzen zait. Generaman joera sendotzea genuen helburu eta hori lortu da. Zuzendaritza ondo ari da lanean eta joan den urteko taldea mantentzeaz gain, beste tolosar batzuk berreskuratu ditugu. Pablo Artoia, Jon Regillaga, Joseba Romero eta Cristian Valor datorren denboraldian Tolosan izango dira eta hori oso garrantzitsua da. Nire azken gomendioa denarekin berdin jarrai dezaten izan da. Gaur bertan jakinarazi didate hurrengo urteko entrenatzaile eta prestatzaile fisikoa zein izango diren eta oso bikote egokia iruditzen zait.

**Zeren falta nabarituko duzu Arabiar Emirerrietan?**

Ziurrenik Donostiako Kontxa hondartzaren falta nabarituko dut, baina futbolera mugatuz, Tolosan izan dugun aldagelako giroa ez dugu ez han eta ez inon berriz aurkituko.

**Zenbat denborarako zoaz?**

Ate hau ireki ondoren ezin jakin daiteke noiz arte iraungo duen. Hiru hilabeteren ondoren entrenatzaile eta gu etxera etor gintezke, futbola horrelakoa delako, edota denboraldia bukatu eta kontratua berritu genezake. Behin maleta eginik ezin daiteke aterik itxi.

**Amaitzeko, gizon polifazetikoa zara. Entrenatzaile eskainiko al diozu denbora?**

Bai, azkenean. Beti egin ditut gauza asko batera, baina behingoz 24 orduak futbolari eskainiko dizkiot.

**Beraz, lanbidez?**

Entrenatzaile.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



VILLABONA ▶ GIZARTEA

# Villabonako 8. Garagardo Azoka atepak irekitzeko prest

Bihar hasi eta igandera bitarte luzatuko da festa Txermingo ikastolan



Jende ugari biltzen da Villabonako Garagardo Azokan; argazkian, iazko saioa. G. AZKUE

## GARAZI AZKUE

Urtero bezala, Santioen aurreko asteburuan, Villabonako garagardo azoka antolatuta du Irrintzi elkarteak. Jende andana, garagardoa eta alemaniar giroa izango da bihar hasi eta igandera bitarte Villabonako Txermin auzoan.

Zortzigarren urtea dute elkarte kideek garagardo azoka antolatzen, eta, urtetik urtera jende gehiago eta azpiegitura handiagoa biltzen du azokak. Azken denboraldian, gainera, garagardo azokak modan daude eta Euskal Herriko txoko gehienetan antolatuta dituzte modu honetako azokak.

Dagoeneko erreferentzia puntu bilakatu da Villabonako azoka hau eta Gipuzkoa oso

etorri ohi da jendea garagardoa edatera.

### Lan asko

Horrelako ekintza antolatzeko lan asko egin behar dela aitortu dute Irrintzi elkarte kideek eta horretan daude egun hauetan goizetik gauera. Guztia prestatzen orain bi hilabete inguru hasi ziren, garagardoak eta janariak eskatu, sukaldeak ekarri... Azoka egongo den lekua atontzeari, berriz, pasa den larunbatean ekin zioten. Baina behin azoka bukatuta, jasotzea tokatzen da; horretarako ere beste hiru bat egun beharko dituzte kideek.

Bihar hasi eta igandera bitarte lan ugari egin beharko dute Irrintzi elkarte kideek eta ingurukoek, egun horietan

150 lagun inguru ibiliko dira lanean. Pasa den urtean, esaterako, 5.000 afari inguru zerbitzatu zituzten, eta 11.000 litro garagardo edan zituzten bertara inguratu zirenek.

Garagardo motei dagokionez, iaz ekarritako garagardo berdinak egongo dira azokan, guztia 18 ezberdin. Horieta hamar garagardo arruntak izango dira eta zortzi bereziak. Salneurriak ere mantendu egin dituzte eta iazko prezio berdinetan erosi ahaliko dira edatekoak eta jatekoak. Garagardo arrunta 2,5 eurotan egongo da eta berezia 3 eurotan. Grimbergen Dubbel, Judas, Grimbergen Cuveé l'ermitege edota Nostrum dira, esaterako, iaz gehien edan zirenak. Hala ere, antolatzaileen esanetan, «jendea saiatzen

da garagardo mota ezberdinak probatzen, gero gustuko duena topatzen duenean hori hartzen badu ere».

Jatekoari dagokionez, lehen urteetan ukondoak, saltxitxak eta gazta eskaintzen zituzten; urteen poderioz asko aldatu da menua ere. Jaki horiek mantentzen diren arren, bakailoa, lasagna edota gulak gehitu dituzte.

Baina egongo dira aldatetako ere; esaterako, beste urtetan ez bezala, entsalada jateko aukera izango da aurten, letxua eta entsalada alemaniarra aukeran. Eta bestetik, pizza kendu dute eskaintzen arteak, iaz, estraineko urtean, ez baitzuen arrakastarik izan.

Eta hau guztia prestatzeko, lau labe industrial, zortzi sukalde, 13 mikrouhin eta plan-txa handi bat ekarri dituzte. Aurten, 3.000 ukondo inguru eta 1.000 kilo saltxitxa egongo baitira bertaratzen direnentzat.

### Tenerifera bidaia

Baina jatekoak eta edatekoak eskuratzeko gain, azokara gerturatzeko direnek bidaia eder bat lortzeko aukera izango dute. Bi laguntzat Tenerifera pentsio erdian astebeterako oporrak zozketatuko dituzte azokako azken egunean.

Azoka bihartzik aurrera egongo da irekita, 18:00etan zabalduko dituzte atepa egunero eta 1:00ak ingurura arte izango da edateko eta jateko aukera Villabonako Txermingo ikastolan. Eta ostiralean, estrainekoz, kontzertua antolatu dute; Pariak bai taldeak alaituko du etzi gaueko giroa Villabonan. 23:00etan hasiko da taldea musika saioarekin.

ASTEASU ▶

## Iban Sanchez garaile Santamañako igoeran

Nesken artean Maria Jesus Silvano iritsi zen lehen postuan; 83 kirolari izan ziren

G. AZKUE

Iban Sanchez gasteiztarra iritsi zen lehen postuan igandeko Santamañako IV. Igoeran. 25 minutu eta 50 segundoko denborarekin hautsi zuen orain arteko errekorra. Bigarren lekua Juan Mari Garin iritsi zen. Eta hirugarren lekua Patxi Urizar billabonatarrek bete zuen.

Nesken artean, Maria Jesus Silvano donostiarrak iritsi zen lehen lekuan, Lourdes Alonso donostiarrak bigarren lekua bete zuen eta Nerea Amilibia iazko irabazlea hirugarren lekuan sartu zen.

Guztira 83 korrikalarik hartu zuten parte lasterketan, iazko partaidetza bikoiztu zen.

VILLABONA ▶

## Lander Etxeberriari omenaldia ostiralean

G. AZKUE

Ekainaren 29an utzi zuten Lander Etxeberria billabonatarra aske. Orain, herritarrek, omenaldia eskainiko diote. Elkartratzea ostiralean izango da 19:00etan Villabonako plazan. Ondoren sagardotegian afaria egingo dute, eta, bertarako txartelak salgai daude Iratzar elkartearen.

# www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

eztabaidako galdera berria:

zer iruditzen zaizu EBBk Lizartzako Udaleko auzian hartutako erabakia



ADOS ZAUDE? ▶ AURKA? ▶ HERRITARREK DUTE ARRAZOI? ▶ EAJ-K? ▶ EMAN IRITZIA

## BIDEGOIAN ▶ UDALEKU IREKIAK



Elefanteak izango bailiran plazari buelta ematea zen gainditu beharreko probetako bat. O.ESKITXABEL

# Inoiz baino haur eta gaztetxo gehiago udaleku irekietan

Gaur, Bidegoiango Olinpiar Jokoak egingo dituzte eta bihar, etxetik kanpo, futbol zelaian edo pilotalekuan lo egingo dute

## OLAIA ESKITXABEL

Inoiz baino haur gehiago bildu dira udaleku irekietan; Goiatzeko eta Bidaniako berrogeita bost haur eta gaztetxo goizero biltzen dira eta begiraleek pro-

posatutako jokoak eta jolasak egiten dituzte. Uztailearen hasieran hasi ziren udaleku irekiak eta etzi amaituko dira.

Atzo, lau urtetik hamasei urte bitarteko haurrek eta gaztetxoek bost taldetan banatu

eta froga desberdinak gainditu behar izan zituzten: makarroiak osatutako lepokoak egin, etzanda zenbakiak osatu, zabor poltsekin soinekoak egin, aurpegia margotu... Azkenean, erdi moztarotuta amaitu zuten denek.

Gaur, Olinpiar Jokoak egingo dituzte pilotalekuan; taldetan banatuta «izerdia ateratzeko saioak» izango dituzte.

## Zakuaren barruan

Bihar, etxetik kanpo egingo dute lo gaztetxoek; eguraldi ona egiten badu Bidaniako futbol zelaian jarriko dituzte kanpin dendak; eguraldi txarra egiten badu, pilotalekuan egingo dute lo zakuan sartuta. Gaur, dantzaldia ere egingo dute. Barruak berotzeko, elkarrean gosalduko dute ostiralean, uztailearen 16an; ondoren, altxorraren bila jolastu ondoren, hurrengo urtera arte agurtuko dira.



Makarroiak lepokoak egin zituzten gaztetxoek. O.ESKITXABEL

## HORTZ-KLINIKA

Manuel Renobales Iturbe doktorea  
M<sup>o</sup> Pilar Martínez Andueza doktorea

Larraitz, 15-1, esk.  
Tel.: 943 65 41 12

ALEGIA

## BIDANIA ▶

## Hastapen ikastaroa, KZgunean

Internet ezagutzen ez dutenek, hastapen ikastaroa egiteko aukera izango dute astelehenetik, uztailearen 19tik, uztailearen 23ra bitarte; ikastaroa pertsona helduei dago zuzenduta. Goizeko ordutegia izango da: 08:00etatik 10:00etara. Izena emateko azken eguna etzi, ostirala, izango da; interesatuek KZgunera deitu dezakete (943 68 11 97) 12:30etik 16:00etara bitartean. Promozio berezi bat dela medio, izena ematen dutenek KZguneko logotipoa duen xira bana jasoko dute.

## ALEGIA ▶

## Bidegurutzetan egoteko jende beharrean

Etzi, ostirala, XXVI. Xakaren Oroimenezko Txirrindu Proba izango da; 09:00etan abiatuko dira txirrindulariak herriko plazatik. Languarre Txirrindulari Elkarteak proba «behar bezala joan dadin», bidegurutzetan egoteko jende beharra dagoela azaldu du. Laguntzeko aukera dutenek, elkarteko kideengana jo dezakete.

## IKAZTEGIETA ▶

## Larruzala zaintzeko gomendioak

*Larruzala nola zaindu* ize-neko hitzaldia eskainiko du Kristina Otermin adituak gaur. Kutxa antolatutako hitzaldia da, eta, bertan, larruzala osasuntsu mantentzeko gomendioak luzatuko ditu, besteak beste. Hitzaldia, Kiroldegian izango da 16:30ean; Udalak herritar guztiak gonbidatuta daudela azaldu du.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Añoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aurrerik aldizkaria: 30 07 32

## EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Quejglas, M.A., Euskal Herria, 46 (Ibarra). 67 32 74  
Erbiti, O., Lizarraga, 7 (Leitza). 112

## TOLOSALDEKO HITZA

Publizitate. 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publi@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona\_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info

Añoetaaldea. 687 41 00 22

anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

## LAN ESKAINTZA

Taberna. Astebukaeratarako neska bat behar da barrarako.  
Telf. 943 69 19 33.

Taberna. Tolosaldeko taberna batean lan egiteko neska bat behar dugu. P.K. 171 Villabona.

**ISKIÑA TABERNA**

**Golzean Salda Gauetan martxal INTERNET**

San Juan, 59 ALEGIA  
Tlf.: 943653097

GUTUN@K ▶ 

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## Lizartzan posible bada, Ibarren zergatik ez?

Uztak pasa den ekainean buruturiko udalbatzari egun herriari bizi den egoera antide-mokratikoari irtenbide bat bilatzeko mozioa aurkeztu zion non beste zenbaiten artean 5-1985 LOREG-eko 182. artikuluan jasotzen den formula aplikatzea eskatzen zitzaion herri-tarrek aukeraturiko zinegotzi-ek eskubide osoz bere kar-gua beregana dezaten.

Honen aurrean EAJ-EAK bere mozioa onartu zuten printzipio eta asmo onez betea egon arren konpromisorik hartzeko borondaterik gabe.

EAJ-EAren mozioa:

1. «Alderdi politikoko guztiak aukera berdintasun osoz bere burua hauteskundeetara aurkezteko eskubide bera dute, gizar-teak bere ordezkari politikoak aukeratzeko duen eskubide-defenditzen dute». Uztak 842 bozka, beraz, 5 zinegotzi lortu zituen; gaur egun urtebe-ter beranduago oraindik Udaleko erabaki organo guztietatik kanpo gaude.

2. «Herriko pertsona arlo poli-tiko eta sozial guztiak bereiz-ketarik gabe egin gabe Udaleko egunez eguneko bizitzan parte hartzeko daukaten esku-bidearen alde hartuta dauka-gun konpromezua adierazten dugu berriro ere eta zehazki Ibarako Uztarekin partehar-teak irekitzeko...».

a) Edozein gai edo informa-zioaren inguruan Uztako zine-gotziak ez gaituzte kontutan hartzen eta harremanen bat izan den bakoitzean Uztako zi-negotzian inziatiabaz izan da.

b) Udalak buruturiko lehen udalbatzan erabakitakoaren

arabera udalbatzak arratsalde-ko zortziretan burutu behar di-tuzte. Kasu honetan ere deialdi eta gai ordenak aurrez jasotzea eskatu genuen, herriak aukera-tuak izan garen heinean gure iritzia eman ahal izateko baino ez dute horretan ere borondate gehiegirik agertu. Dirudienez, gainera, beraiek erabakitakoaren gainetik ordua aurreratzea ohitura bilakatu da herri-tarron parte-hartzea oztopatuz.

d) Duela urtebete udal hauteskundeen hurrengo egunetan sorturiko egoera antidemokra-tiko honi buruz hitz egiteko bi-lera bat izan zen. Ondoren,

martxoko Espainiako hautes-kundeak pasa eta bilera haue-kin jarraitzeko deituko zigula aipatu zuen behin eta berriro Pello Aseginolaza EAJ-ko zine-gotziak. Oraindik zai gaude!

Bai aurreko puntuetan zein mozio osoan agertzen diren puntuekin (norbaitek irakurri nahi badu udaletxean dago edonoren eskura) erabat ados gaude, baina argi eta garbi esan nahi dugu mozio dotore-tan jasotzen diren hitz hutsek ez dutela ezertarako balio hauek praktikan jartzeko as-morik ez badute.

UZTAKO ZINEGOTZIAK ▶ IBARRA

LIZARTZA ▶ POLITIKA

# Egibarren erabakia atzera bota du EAJ-k Espainiako Hauteskunde Batzordean

Axurdarioko kideek herritarrei ofizialki «ezer jakinarazi ez eta zain» direla aipatu dute, eta Ezkiaga EAJko zinegotziak ez dutela oraingoz «adierazpenik egingo»



Lizartzako udaletxea. HITZA

ERREDAKZIOA

EBBk herenegun egindako batzar luzean hala adostuta, EAJk Joseba Egibarren erabakiaren balio gabetzea aurkeztu zion Espainiako Hauteskunde Batzordeari, atzo goizean Madril-en. Hortaz, Lizartzako hiru zinegotzi kargu herritarren esku uzteko erabakia atzera bota du alderdi jeltzaleak. Batzar ostean EAJk bidalitako oharrean, alderdikoak ez diren ordezkariak EAJren izenean egin ahal-

ko luketena ezin dutela euren gain hartu agertzen zen.

HITZak Axurdarioko ordezkari- bidez jakin ahal izan duenez, «herritarrei oraindik ez zaie ezer jakinarazi ofizialki erabakiaren inguruan, eta horren zain dira».

Bestalde, Patxi Ezkiaga Lizartzako EAJko zinegotziak ez dutela «oraingoz adierazpenik egingo» aipatu zuen. Atzo GBBko (Gipuzkoako Buru Batzar) kideak batzarrean bildu zen, tartean Ezkiaga eta Egibar zire-

la, eta Lizartzako auziaren inguruan hitz egin zuten.

Horren harira, Arnaldo Otegi ezker abertzaleko ordezkariak EBBk hartutako erabakia gaitzetsi zuen atzo goizean. «Ezin da PPK eta PSOEek onartutako Alderdien Legearen aurka egon eta, gero, lege hori bete, bide legalak aztertuko direla esan eta, aldi berean, bide legalik ez dagoela onartu». Era berean, EAJri Madril-en esaneta aritzea leporatu zion. «Mama ez dago Madril-en, gure ar-

tean baizik». Konponbiderako, «etxean» ados jarri beharra nabarmendu zuen.

Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Ahal-dun Nagusiak ontzat jo zuen EBBren erabakia: «Zorrotza, neurtua, eta erantzun propioa ematen ari da», adierazi zuen. AuBren jar-rrera ere salatu zuen, portaera «sinesgaitza» duela eta egoe-rarekin «eroso» dagoela erant-si zuen. Aldundiak konponbi-tadeak bilatzeko borondatea azaldu duenean, «gatazka eta

egoera bere horretan mantendu nahi duen AuBko zuzenda-ritza batekin» egin du topo.

Rodolfo Ares PSE-EEko bozeramaleak EBBren erabakia «egokia eta baikorra» dela esan zuen, eta horrekin legea-ren aurka ez jokatzea lortu dela. Maria San Gil PPKo lehen-dakari hautagaiak «ETari aho-tsa eman nahi izana» salatu zuen eta Carlos Iturgaitzen iri-tziz EBBren erabakia Imaz eta Egibarren arteko «botere bo-rrokaren» ondorio da.



**Iñaki Uria ASKATU!**

**DEIALDI NAZIONALA**

Uztailaren 20an, 20:00etan,  
kontzentrazioa Zarauzko Udaletxearen aurrean  
(Lege Zaharren plaza)

**BIDEGABEKERIAREKIN AMAITU BEHAR DUGU**

**Iñaki Uria Askatu Taldea**

## LEITZA ▶

## Kamioi batek motor bat ia harrapatu du Sarrio parean

Motorreko gidariak zangoan ditu zauriak, kamioiak eragindako zanpaketa-erengatik

J. ASTIBIA

Ostiral eguerdian gertatu zen istripua eta zauriturik suertatu zen 53 urteko J.M.Z.U. gizasemea, jasotako zauriez sendabidean da, zango bateko belausaldea ubeldua eta mindua badauka ere.

Aipatutako istripua, Sarriok Leitzan duen paper-fabrikatik Leitz-Tolosa errepidera duen atereran gertatu zen. Nonbait bi kamioi sartu-ateran batera tokatu omen ziren eta gurutzaketa burutzeko, ateratzera zihoan kamioiak atzerantz jo zuen, justu motorra ere, bere atzean, errepidera ateratzeko zain zegoela.

Oinezko batek ohartarazi omen zuen kamioiaria eta geldituarazi. Ordurako, ordea, motorreko gidariak zangoa kamioaren atzeko babesa eta motorraren artean harrapatu omen zuen, handik ihes egitea eragotziz. Hori dela eta, zauritua suertatu zen motor gidaria, zangoan presio horrek eragindako ubelduak dituelarik.

Istripua gertatu zenean, bige-uruzte horretan errepidera norantza bakarrekoa zegoen, han bertan egiten ari diren obra batzuegatik. Dirudienaz, gurutzatzerakoan bi kamioiek hainbat maniobra egin behar izan zituzten eta atzerantz jo zuenak, ispluetatik ez zuen motorra hor zegoenik ikusi, eremu itsuan omen zegoelako.

## ARESO ▶ INGURUMENA

## Astomela erreka borondatezko lanean garbituko dute

Borondatezko lana saritzen duen programa batera aurkeztu eta horrela eskuratu du diru laguntza Aresoko Udalak



Astomela erreka harrigunearen bazterretik igarotzen denean duen itxura. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Astomela erreka garbitzeko 2.120 euroko laguntza lortu du Udalak eta festa ondoren burutuko dute ekimena, beti ere herenegun herriko eragileek egin zuten bilkuran hartutako erabakiaren arabera.

Erreka hau garbitzeko ekimena ez da sortu berria, lehen ere garbiketa saioak egin izan baitituzte. Oraingoan, erakunde publiko batek borondatez egiten diren lanetarako diru laguntzak eskaintzen zituenaren berri zan zuen Udalak eta egi-

tismo hau aurkeztu zuten «herriko gazteekin batera, Astomela erreka, egun pare batez edo, garbitu aldi bat emateko ideia sortu zen eta mendiko gure tekniko bati asmo horren nondik norakoak azaldu genizkion, berak proiektua idatz zezan», azaldu dute.

Proiektuan lanaren xehetasunak adierazi —garbitu behar duten erreka zatia, zer lan egin behar duten, borondatezko langile taldearen arduradunak izendatu— eta aurrekontua ere aurkeztu omen zuten, eta horrela, borondatezko lan

hau burutzeko bidea lortu. «Betik ere, herriko gazteekin egin beharreko egitasmoa da eta lanak egin ondoren, bazkari bat ere egingen da», zioten udal arduradunek.

Astomela erreka Aresoko herria gurutzatzen du landan barrena, hego-ekialdetik ipar-mendebalerako norantzan, zati batzutan herri gunearen ertetik igarotzen delarik. Leizaran ibaiarekin bat egiten du, Aresoko eta Leitzako Ibiur base-rrien tartean, jada errepide nagusiaren ondoan. Festa ondoren, auzolanez garbituko dute.

## LEITZA ▶

## Gas horniketan etenaldia dago iragarrita

Gaur asteazkena, hilak 14 21:00etatik hasi eta bihar osteguna, 8:00ak bitartean hain justu, herriko gas horniketan etenaldia izanen dela adierazi dute ohar baten bidez, enpresatik bertatik. Etenaldia, diotenez «hoditeria -sarearen segurtasuna eta zerbitzua bera hobetzeko» egin behar dituzten hainbat ego-kitzapen eta moldaketa direla eta, burutu behar omen dute. Noski, gasa herriko hornidura saretik hartzen duten etxebizitzetan izanen du eragina neurri honek, ez bestetan. «Bihar gasa etxean izateko, giltzari itxi-ireki bat egin behar zaio», ohartarazi dute enpresako teknikoez azkenik.

## LEITZA ▶

## Plater tiraketa larunbatean Bazarlan

Larunbat honetan, hilak 17 eta arratsalde, 16:00tan zehazki, plater-tiraketa saioa antolatu du Leitzako ehiztari elkarteak. Saioa Bazarlako gainean burutuko dela jakinarazi dute eta bertan elkar-terko kideek hartu dezakete parte eta bereziki egiten zaie deia. Hori hala izanik, egun-ean bertan eta saioa burutuko den lekuan, Bazarlan beraz, eman behar da izena eta parte hartzeko, beharrezko den erramienta norberak eraman behar omen du. Gainerako tresneria, esate baterako jaurtigailua eta epai-mahaia, antolakuntzatik jarriko omen dira. Aurreko saioa ekainaren 27an burutu zuten, baina bertaratu ziren partehartzaile urriek ez zuten asko tiratzerik izan, egun hartan arratsalderako sartu zuten lainoa zela eta.

## iragarki laburrak ▶



**Aia.** Baserría salgai, bi solairukoa, bakoitza 250 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin hornitua. Bi etxebizitza egiteko aukera.

**Aizarnazabal.** 50.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai.

**Anoeta.** 2 eta 3 logelako etxebizitza berriak.

**Belautza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabiloia, erabat garbia, argisua eta garabiarekin.

**Donostia.** Rodil zeharkalean 42 m<sup>2</sup>-ko apartamentu berritua, erabat kanpoaldera. 234.400 euro.

**Donostia.** 104 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, Kolon pasealekuan, bista zoragarriak dituena eta berritua.

**Donostia.** Garibai kalean 32 m<sup>2</sup>-ko bulegoa alokairuan, 1. solairuan.

**Gaintza (Nafarroa).** 3 solairuko baserría salgai; berrikuntza behar du.

**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Berritzeko. Lehenengo pisua.

**Kanpoaldera.**

**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Egoera onean. Altzariez hornitua. 198.335 euro.

**Ibarra.** 95 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabiloia salgai, nekazaritzarako egokia den 2.500 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.

**Irura.** 52 m<sup>2</sup>-ko apartamentua lorategiarekin, beheko solairuan.

**Itsasondo.** Eraikuntza berriko etxebizitza; duplexa eta lorategia beheko solairuan.

**Legorreta.** 1.000 m<sup>2</sup>-ko pabiloia salgai, 5.000 m<sup>2</sup> dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

**Lizartza.** Solairuko 130 m<sup>2</sup> dituen hiru solairuko baserri berritua.

**Segura.** 60 eta 90 m<sup>2</sup>-ko bi etxebizitza salgai.

**Tolosa.** Ebe atxikia. 180 m<sup>2</sup>-koa, lau gela, bainugela eta komuna. Altzariez hornitutako sukaldea.

**Tolosa.** Erremontari kalean berritua dagoen etxebizitza salgai, 2 gela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekuarekin.

**Tolosa.** San Esteban auzoan 75 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza, kanpoaldera begira.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko uztailaren 14a, asteazkena ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Aiegia, Aizoa, Alzo, Ametsleta, Ansoa, Baleriano, Berastegi, Eludain, Hernialde, Ibarri, Inza, Larnai, Leizaburu, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zuzkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jauraritzia  
Kultura Saila

**943 30 43 46**

GAURKO  
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroea

20

hotzera

14

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

20

hotzera

14

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Ibarra.** Sendi ekintzaren San Bartolometako zozketarako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkarte tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan.

**Ikaztegieta.** *Larruazala nola zaindu*, Kristina Oterminen hitzaldia. 16:30ean kiroldegian

**Tolosa.** Irailean EGA ikastaroa egiteko matrikula zabalik dago Aitzol udal euskaltegian bihar arte.

**Tolosa.** Peñascal Fundazioan Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea zabalik dago: 16-25 urteko graduaturik gabekoentzat, mailako prestakuntza tekniko, graduatua lortzeko eta lan mundurako irtenbidea. Informazioa: 943 676161.

**Tolosa.** Harizpe jubilatuen elkartearen XVII. urteurren ospakizuna. Bihar 16:00etatik 18:00etara bingo berezia eta 18:15ean txokolatea eta bizkoxoak.

**Tolosa.** Kultur dinamizatzailea behar du Galtzaundi Euskara Taldeak. Curriculomak bidali: Nafarroa et. 6, behea edo galtzaundi@galtzaundi.com

### ERAKUSKETAK

**Aitzo.** *Altzoko Erraldoia, Aitzo ezaguna egin duen gizona.*

**Hernialde.** Luis M. Nuñez margolanak Ostatuan.

**Ibarra.** Argazkiak eta marrazkiak. Kultur Etxean.

**Tolosa.** Charo Berraren margolanak Lanbroan.

### KIROLA

**Tolosa.** Paleta Txapelketa: Orbegozo-Goñi/ Lakunza-Agote; Lontxo-Nazabal/ Iñaki-Txapartegi eta Otermini-Goitia/ Garmendia-Urretabizkaia. 19:00etan Berazubiko frontoian.

**Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak astebururako mendi irteera antolatuta du 15 eta 18 urte bitartekoentzat Pirinioetara. 943 652789.

### ZINE-KLUBA

**Ibarra.** Udako zinema aire librean. Bihar, *Eres mi heroe*, 22:00etan, udaleku ondoko frontoian.

# Arrasate kalea Ibarra?

**IBARRA ▶** Tolosatik Leizara zoazela, Euskal Herria kale bukaeran, lanak direla-eta jarri duten seinale batek halaxe dio: 'Arrasate kalea moztuta'



Ibarrako Euskal Herria kalean da Arrasate kaleari erreferentzia eginez lanegatik kalea moztuta dagoela ohartarazten duen seinalea. I. ETXEBESTE

### I. ETXEBESTE

**D**onostian badela bage-nekien, eta Gipuzkoako herriaren berri ere badugu; baina orain arte ez dugu sekula entzun Ibarra Arrasate izeneko kalerik bazegoenik. Ustez Euskal Herria zena Arrasate bihurtu dute, bada, azkenaldian. Izan ere, Tolosatik Leizara bidean, Ibarra Euskal Herria kale bukaeran, lanak adierazteko jartzen dituzten seinale horietako batek halaxe dio: 'Arrasate kalea moztuta'.

Kultur Etxearen pare horretan autoz bazoaz, eta semaforoa gorrian tokatzen bada (harritzekoa litzateke kontrako

gertatzea), begiratu ezker aldera; segituan ohartuko zara zer edo zer ez dagoela ondo inguruan. Edo Donostian behar zuen seinalea Ibarra ekarri dute halaberharrez, edo ez zegoen besterik...

Zeren, ez dugu uste egun bat eta beste bat, gasaren hodiak edo telefonoaren hariak lurrazpian sartzeko orain aste pare batetik lanean ari direnak detailearekin geratuko ez zirenik, herritarren gehiengoaren ahotan kontu hori dagoenean. Berrobi, Berastegi edota Leizara aldera egiten dutenek ere maiz ikusiko zuten honezkeroko ditxosozko seinalea!

Hala ere, egun batetik beste-

ra Arrasate kalea herrian jarri dutelako bakarrik ez, beste arrazoi batengatik ere egin diogu so seinale horri. Eta, Euskadi Irratiko *Arratsaldekoa* saioan esaten duten moduan, 'ez zaigu batere gustatu'. Ez zaigu gustatu, kalea (Arrasate ez, eta Euskal Herria, baina beno...) ez dutelako orain artean moztu beharrik izan. Hortaz, esan dezakegu seinaleak ez duela mezu egokia helarazteko balio. Lanak direla-eta egia da Euskal Herria kaleko ezkeraldekoko espaloiarekin kontuz ibili behar dutela oinezkoek bertatik pasatzean estropozu egingo ez badute. Baina, horrexegatik hain justu, 'kontuz' jarri behar

luxe 'moztuta' jartzen duen lekuan.

Hirugarren kontu batengatik ere okerreko begitik sartu zaigu seinale madarikatua: erdaraz dagoelako. Gazteleraz jartzen duelako Arrasate kalea moztuta dagoela. Kaleaz ari dela zehaztu gabe, euskaraz ere ohartarazten du moztetaz, baina Ibarra biziaren gehiengo euskalduna da, aizue, eta seinale hori ez dago euskal hiztunekin eta irakurleekin pentsatuta egina.

Tira, bitxikeria gisa ez dago gaizki; gustatu egin zaigu, nolabait, eta TOLOSALDEKO ETA LEIZALDEKO HITZAN bitxikerientzako tartea ere badenez, horratz.

### ZORION AGURRAK ▶

**HITZA, zorion agurren tartea**

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zorientzeko, etorri: HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!